

**MIXEL LABEGUERIE**  
**(1921-1980)**

Egilea:

**MIXEL ITZAINA**

## BIZITZAKO URRATS NAGUSIAK

Mixel Labeguerie Uztaritzen sortu zen 1921eko martxoaren 4an, Berantenea deitu etxean. Anaia eta arreba bat bazituen: Joseph, bera baino urte bat gazteagoa, eta Maite 1927an sortua.

Mixelen aitatxi, Hypolitte Labeguerie, Bardozoko herritik zetorren. Ofizioz arotza edo errementeria zen, eta bere semea, Leon ere hala izanen da.

Mixelen ama, Marie Jeanne Haira, hura ere Uztaritzen sortua da, Latxaldeberrian. Musikaria da. Piano ikastaldiak ematen ditu.

Fraideetako eskolan ibiliko da Mixel herrian bertan. Gero, Uztaritzen den seminario ttipian, batxilergoa bildu arte. Bordelen eginen ditu mediku-ikasketak eta Parisen bukatuko. 1948an Kanbon mediku plantatzen da Caminoren lagun.

Augustine Peyrot, 21 urteko uztariztar neska gaztearekin ezkonduko da 1952an. Hau 33 urtetan, supituki, zenduko da. Bost seme eman dizkio: lehena Beñat, 1953an sortua, 16 urtetan istripuz hiltzen dena. Karia horretarat du egin *Bortz iturri* kantua. Beste lau semeak: Eneko, Peio, Txomin eta Xabi dira, 1954 eta 1962 artean sortuak.



Mixel Labeguerie, 1921-1980



Mixelen aitamak: Leon Labeguerie eta Marie Jeanne Haira

Diputatugoa 1967an galtzen du Mixel Inchausperen aurka. Honek 21.914 boz bildu ditu; Labeguerie hautagaiak, 17.004. Baina 1974an, senatore sartzen da bederatzirterako. Artean zenduko da, 1980ko uztailaren 28an. Ehorzketak Kanbon ospatuko dira, hiru egun berantago, lau mila jendek parte hartzen dutela.

Berriz ezkonduko da 1975ean Rita D' Oberndorffekin.

Ezpeletako kantonamenduan kontseilari orokor gai aurkezten da, 1958an, Caminoren kontra. Ez da pasatzen: Mixelek 1.707 boz edo boto bildu ditu; Caminok, 2.225.

Diputatu da 1962an. 18.649 bozekin Camino garaitu du. Honek 8.274 dituelarik biltzen. 1964an, Ezpeleta kantonamenduko kontseilari orokor da. 3.199 boz ukan ditu. Funtsezko kontrariorik ez zaio atera. Hil arte kargu hori atxikiko du. 1965ean, Kanboko auzapez edo alkate izendatua da. Hautatuak izan diren 21 kontseilukoetarik 17 bere aldekoak ditu. Kargu hori ere hil arte eskutan ukanen du.



Mixel bere andrearekin espos-egunean, 1952an, elizatik ateratzen

## HAUR DENBORA

Mixel Labeguerie Uztaritzen zelarik, Bordelerat mediku-ikasketak egiterat joan aitzin, nolako giroa zen haur eta mutiko gaztearen inguruan?

Fraideetan hasi zituen bere ikasketak Mixelek herrian berean. Beti bere anaia Josephekin («Jo» erraiten zioten). Eskola pribatu honetan asko baserrietako ume bazebilen eta euskaraz baizik ez ziren mintzo beren



Bere bost semeekin: Beñat, Eneko, Peio, Txomin eta Xabi

3



Bere amarekin eztei-egunean elizara sartzen

artean. Mixelek euskara etxean, bere aitama eta haurideekin ikasia zuen. Frantximantak, kopuru handiagoan, eskola publikoratu zihoazen. Hauek omen, xapela kentzen bazekiten jaunen aitzinean, zibilizatuagoak nonbait. Uste dut honek baduela bere garrantzia Mixelen geroari buruz.

Garai haietan parropiak bere babesean hartzen zituen umeak, eskolatik kanpo asko abusagailu edo jolas eskainiz: pilota, foota, antzerkia ere bai. Bestalde, herriko erretoreak, Blazy jaunak, Lekarozko komentutik aita Hilario Olazaran kaputxinoa ekar arazi zuen. Honekin zuen Mixelek txistua joiten eta Jo anaiak atabalean ikasi. Lehen euskal dantza taldea horrela sortu zen Uztaritzen.



Batxilergoa, herri bereko seminario ttipian (hemen apezgaiak eta laikoak baziren) egin ikasketen ondotik bildu zuen. Diotenaz, Mixelek errextasun handia zuen denetan, salbu matematiketan. Eta, behar zelarik, hura zen eskola guziaren izenean mintzo.

Etxeko giroa giro beroa omen zuen gure mutikoak. Familia ez zen aberatsa eta bere mediku-ikasketak etxekoek ezin dizkiote pagatu. Baina musikariak baitziren, bereziki amaren aldetik, elkarrekin orkestra bat muntatzen omen zuten eta igandeetan arratsalde osoak etxean bestan iragaiten.

Uste dut, ttipitan familiaz bildu aburu garbi hori bere lanen oinarri izanen duela Mixelek geroan. Urte haietan euskarak eta euskal kulturak leku handia zuten Uztaritzen. Blazy erretoreak liburu bat bazuen pilotaz idatzia. Bestalde apez euskaltzaleez inguratua bizi zen. Herri horretan egonak dira Adema Zalduby, Elissalde «Zerbitzari», Leon Leon. Oxobi ez zen urrun bizi. Horkoak ziren Eugene Goyhenetche, Louis Dassance, Souberbielle medikua eta abar.



Familian gitarra jotzen eta kantuan

Baina oroz gainera Piarres Lafitte aipatu behar da. Honek sortu zituen, Uztaritzen, *Aintzina* agerkaria eta *Euskalherrizaleak* elkarteak. Ybarnegaray eskuin muturreko frantsesa denbora haietan Iparraldeko jaun eta jabe zela erran daiteke. Abertzale eta sozial kutsua ekartzen du Piarres Lafittek. Eragin handia ukanen du Mixelen gainean.



Beñatekin. Seme zaharrena, hil egin zen 16 urtetan istripuz, 1969an

5



Peiorekin

Euskaltzale eginen duen beste gertakari bat hauxe izan daiteke: 1936-1937an Hegoaldetik, Francoren ihesi, etorri iheslari ostea. 155.000 inguru omen ziren. Badakigu horietarik zenbait adiskide handi gelditu direla Mixelekin, bere azken eguna arte.

## BORDELEN IKASLE

Mediku-ikasketak Mixel Labeguerie gazteak Bordelen egin zituen eta Parisen burutu. «Bordelen euskal gramatika landu nuen eta *Irrintzi* izeneko kanta-dantza talde bat sortu genuen...» (*Deia*, 1979-X-6).

Talde horretan barne ziren Mixel Inchauspe, Albert Chabagno, Pierre Curutchet eta abarrek erran digutenez, beti euskaraz ari ziren elkarrekin. Eta ordukotz, pedagogia-mailan Mixel maixu handia zen.

Hegoaldetik etorri zenbait iheslarirekin adiskidetu zen han gure uztariztarra, adibidez Elosegi eta oroz gainetik Faustin Pastor dantza-irakaslearekin. Ez al zuen honek nazien kontrako borrokan sarrarazi? Nahiz berak dioen ari izan dela, «lehenik Francoren kontrako ekintzetan Ajuriagerrarekin, Euskadiko gobernuaren aldeko espioitzan Pepe Mitxelenarekin, euskal errefuxiatuei laguntzen Dorañonarekin, eta nazien kontrako "Resistanci" frantsesean» (*Deia*, 1979-X-16).



Mixel eskolako lagunekin



Mixel eta Jo, bere anaia, Uztaritzen txistua eta atabala jotzen



## GERLA DENBORAN: 1940-1944

Gerla izan arren, Ipar Euskal Herrian eta, oroz gainera, Uztaritzen euskal giroa nehoiz baino biziagoa da. 1942ko urte hastean *Aintzina* berriz ateratzen da. Agerkari honen inguruan biltzen dira Jean Duboscq, Saint-Pierre apezpikua, Marc Legasse, Andre Ospital, Madeleine Jaureguiberry, Georges Lacombe, aita Donostia, Leon Leon, Zerbitzari, Oxoby, Jaureguiberry medikua, Louis Dassance, Mathieu Aguerre, Piarres Xarriton eta, bistan da, Piarres Lafitte. Marc Legassek Piarres Larzabal baztertua zuen ez zitziolakotz aski «separatista»!

Labeguerie noren konpainian zebilen erakusteko emaiten ditut izen hauek. *Aintzina* agerkarian idazten zuen nahiz oraino 21 urte baizik ez izan.



Eneko semearekin. Aita bezala kantaria



Rita bere bigarren emaztearekin

## EUSKALDUN GAZTEEN BATASUNA (E.G.B.)

Euskaldun Gazteen Batasuna Uztaritzen sortu zen 1943ko apirilean, Eugene Goyhenetchekek sustaturik. Helburu hauek zituen: euskararen irakaskuntzarako eta aitzinamendurako hartu behar ziren sei neurri; Euskal Herriaren batasuna, bere administrazio partikular batekin; «Zazpiak bat» lemari gazteek beren atxikimendua aldarrikatzen zioten.


Hogei urteren buruan Enbatak, parte segurik, gauza bertsuak galdatzen zituen.

Mixel, Bordeleko Irrintzi taldearen izenean, barne zen. Asko arlotan lan egin du hor: kantua, dantza, koreografia, musika, mintzaldiak, euskararen irakaskuntza, antzerkia eta abar.

Beste sailetan ez dakit zer eman duen, baina dantzaren eta oroz gainetik kantuaren sailean lan gaitza obratu du Mixelek. Berrogeita hamarren bat kantuen doinuak bildu ditu han eta hemen, inguruko herrietan, eta beren eres-zatietan ekarri. Dantzari edo inauteriei buruzko bere artikuluak *Aintzina*-n agerrarazi ditu, hilabetean bat sei hilabetez. Mixelek 21 urte zituen orduan doi-doia.



Irrintzi taldea Bordelen; Mixel eskuinean, txistua jotzen



Bestalde, Eusko Ikaskuntza Elkartean barne izanez, honen 1948 eta 1954ko biltzarretan parte hartu du. Lehenean, Antologia eta medikuntza atalaren lehendakari bezala. Badakigu «dantza sakratua Euskal Herrian» titulupean mintzaldi bat egin zuela. Jakin behar da Joxemiel Barandiaran zela elkarte horren burua.

Euskal antzerkiaren norabideaz debate bat kudeatu zuen Mixelek 1954an, Donibane-Garazin.

Euskal kantu berriaren sortzaile izan denak ez ditu bere obrak uste gabetarik sortu. Gure kulturaren altxorra hogeita zenbait urte hartan beretua zuen.



# 10

Mende honen hastean, Labeguerie auzapezak dioen bezala, «Kanbo herri bat zen, baina ur arraro eta famatu batzuen iturri eta aire ongi-egile batez aberats» zena... Lehengo laborari herrixka euskalduna orain hiri gotor bat bilakatzen ari da».

Bigarren aldiko hauteskundeetan, 1971ko martxoko bozetan, bere lista osoa pasarazi zuen. Orain 23 ziren kontseiluan, horietan zazpi berri.

Besteak beste, lan hauek egin zituen sei urteotan: bideetako argia denetan ezarri, hiri-erdiko karrika horien zabaltzea erabaki, egun hain itxura ederra Kanbori ematen dion antolaketa, Sainte Marie eskola erosi eta euri-uren sarea edo ubideak hedatu.



Uztaritzen berriz, aita Hilario Olazararen kaputxinoarekin: Mixel txistua jotzen eta Jo atabala

Hurrengo hauteskundeetan, 1977ko bozetan ere, airez aire pasatu zen Mixel Labeguerie bere lista osoarekin. Eta bide beretik segitzen du: ama eskola bat, ezker pareta bat, egongiak, ikastetxe bat eraikiz, bideak zabalduz eta abar.

Baina zerbait gehiago egin nahi du: Kanboko herriaren geroa edo etorkizuna bideratu. Hona zer dioen: «Egundik harat gure erabakiak ez dira bakarrik administrazio eta kudeakuntza mailakoak izanen, baina bai politikoak».



Bere txakurrekin



## KULTURA MAILAN

Musika eskola, ehun bat umerekilakoa, anitz lagundu du Mixel auzapezak, bai eta Harmonia Elkartea ere.

Bestalde, 1977ko hauteskunde-paperean hauxe zioen: «Eskualduneri nahi diotegu oraino erran gure herri maiteari bere nortasuna eta eskualdun izpiritua behar diogula atxiki, eta hortako ez direla herrigizonen indarrak aski. Behar da ere herri guziaren nahia. Eskuarari gure laguntza ekarri diogu eskoletan sartzerat entseatuz».

Kanboko Ikasleak eskola girstinoetan euskara sartu duen elkarteari eta ikastola berriari bere sostengua ekarri die. «Charte culturale» 1979an onartu zen. «Bai euskarari» kanpaina lagundu zuen.



Kanboko Herriko Etxea. Hemengo auzapez edo alkate izan zen hil arte

Giscard D'Estaing-en emaztearekin Kanboko Arnagan





## EKONOMIA

Horiek oro auzapez on eta funtsezko batek eginen ditu. Mixel Labegueriren alderat Kanbok bere zorra bi eremu hauetan dauka: klimatismo edo erietxeen sail horretan bai eta Ur-onak edo Thermesak deritzan horien berriz irekitzean.

Erietxeak, 700 lanpostu badira hor, hesteko arriskutan ziren bi arrazoi hauek zirela eta: lehena, sendagailu berriekin bularreria (tuberkulosia) ezeztatu baita; bigarrena, lege batek nahi izan baitu eriak beren eskualdean artatuak izatea. Hitz batez, paristar bat ez zatekeen gehiago Kanboko erietxe batean zaindua izan.

Chatard, bere alkatelagun medikuarekin, eta Parisen zituen harremanei esker, Kanbo salbatua izan da. Barrot, osasun ministroa, Mixelen laguna zen eta Kanbora etorri zen.

Ur-on edo Thermesak 1977an berriz ireki dira. Hetsirik zeuden anitz urte hauetan, lehengo mendeetan fama handikoak izanak, erregina eta inperadoreak hor ibiliak baitira.

Bere kontseiluarekin Mixel Labeguerie auzapezak zortzi urtez lan egin du horiek berriz zutik emateko eta heldu da. Iragan urtean 10.500 pertsonak hiru aste pasatu dituzte hor. Anitz da hemengo ekonomiarentzat.



*Eskuz-esku!* diputatu-bozen edo -kanpainaren karietarat atera zuen kazeta



Zuraiden, 1964an, Louis Genin auzapeza eta Haristoy erretorearekin

## PARISEKO DIPUTATU

Politikako lehen kargua 1962an bildu zuen Mixel Labeguerie diputatuak. 18.649 bozekin Frantziako diputatu bilakatu zen, bere aurka zuen Alexandre Camino kanboarrak 8.274 baizik ez baitzituen eskuratu.

Camino, Algeria frantses nahi baitzuen atxiki, urrundua zen De Gaulle-rengandik Algerian zeraman politikaz ez ados izanez. Mixel orduan ez zen De Gaulle-n ez alde, ez kontra agertu.




Mixel Labeguerie senatoreak Pariseko senatuan aurkeztu zuen txosten bat

Parisen egin dituen urratsen xehetasunetan sartzeko lekurik ez da hemen. Hala ere, erran dezagun, bere eginahalak egin dituela baserriaren alde, baita Hazparne eta Mauleko lanpostuak begiratzeko ere. Denbora haietan bi mila gazte bazihoazen urte oroz Ipar Euskal Herriatik kanporat, lan bila.

Baina De Gaulle-rengandik laster berezi zen. «Euskaldunak libertatea maite» titulupean hona zer idatzi zuen: «Dena den euskaldunak lepotik soka ez baitu maite, balinbada ere urrezko. Ene libertatearen jabe nahi izan dut beti egon, baia edo eza ene kontzientziak manatu bezala emanaz. Politika bat baizik ez dut egin, ene ustez bederen: ene herriaren aldekoa...»

«Euskaldun deputatu berriari» Maurice Sorhouetek, 1962an, egin bertsoak honela bukatzen ziren:

Beira zuk osagarria  
Baituzu lan bat handia.  
Gizona lañoa denean bertze ainitzen  
doblia,  
Zu erituz eri da gure Euskal Herria!



Aita Donostia zendu eta Mixelek moldatutako kantua

Mixel Inchauspe, De Gaullen gizon bezala aurkeztu zen 1967ko bozetan. Baita irabazi ere. Lehen itzulian berean 19.385 boz bildu zituen Inchauspek; Labeguerie hautagaiak 13.626 eta Enbatako Christiane Etchalusek 1.876. Ordukotz alabainan Labeguerie urrundua zen Enbatatik.

Zenbaiten arabera, Ipar Euskal Herriko jendearen kultura politikoak osatzearen beharra badu. Alde batetik, Enbatak eskainitako aterabidea, hego aldearekin uztartuz, ongi zaio. Baina bestaldetik halako lotsa edo beldurra sartzen dio jendeari horrek.

Eta Mixel Labeguerie M. Inchauspe baino Enbatari hurbilago jotzen zuen boto-emaileak. *Indar Berri*, M. D. F.-ko agerkarian, 1965eko azaroaren 5ean, hauxe zioen elkarrizketa batean: «Lecanuet, De Gaullen aurka, Frantziako lehendakarigai presentatzen da.» «Federalista naiz» dio Mixelek. «Lecanuetek Europaren aita deitu Schumanen segida hartzen du. Nazioek gaintitzen dituen Europa batentzat da. (De Gaulle ez da hala). Europa demokratiko eta sozial batentzat. Horrek erran nahi du oraiko nazioek ezeztatuko direla, muga guziak kenduko... Ondorioz gizonak berriz beretuko ditu bere etnia, bere mintzaira, bere ekonomia...».

Denbora hartan bozetan gehiengoa eskuratzeko behar zen De Gaulle jeneralari hurbil eta Enbatatik urrun agertu.



## KONTSEILARI OROKOR



Ezpeleta kantonamenduko kontseilari orokor izendatua izan zen Mixel, 1964an. Ipar alde honetan kantonamendu bakoitzak kontseilari bat igortzen du Paberat. Sei urterako hautatua da. Ezpeletako kantonamenduan herri hauek sartzen dira: Ainhoa, Ezpeleta, Kanbo, Itsasu, Luhoso, Sara eta Zuraide.

Kargu hori, Kanboko auzapezgoa bezala, Mixelek, 1980an zendu arte, atxikiko du.

Pabeko Kontseilu Orokorra euskaldunek eta biarnesek osatzen dute, *Pyrénées Atlantiques* departamendu bakar bat dagoelakotz orain artean.

Mixel Labaguerie, mintzalari paregabea izanez, «maixu» bat Laurent Darraidou, bere Hazparneko lagunaren arabera, «norbait» izan da Paben. Bere kantonamenduko alkateak ongi zerbitzatu ditu. Hala diote Genin Zuraidekoak, Jean Fagoaga Sarako auzapez ohiak eta bestek. Laurent Darraidouk erran didanez euskal kulturari eman zaizkion lehen laguntzak orduan zituzten elkarrekin erdietsi eta ez zen errez izan, «biarnesek gauza horrendako dirua emaita bitxi atxemaiten baitzuten!»

15



Gau iluna  
kantuaren  
eskuizkribua




Aita eta amarengandik jasotako kantuen eskuizkribua: *Astoa saldu eta mandoa erosi* eta *Aurten ezkondurik*

# 16

Hala ere, beti hari beretik ariko da: baserrietan enpresak sortzeari, gazteak etxeetan plantatzeari buruz eta abar.

Bazter edo baserrien gerizatzeko egitasmoari buruz hona zer dioen 1966an: «Lapurdikiko bazterrak lanjerean (arriskuan) direla? Lapurtarrak ere bai! Euskal Herria eder geldituko da, hutsik, euskaldunak hortik joanak izanen direlarik, hiriek irentsirik».

Bainan Kontseilu Orokor horretan badira izen batzuk ez ahanztekoak, oroz gainetik, Arberatzeko Jean Errecartena. Honen ikaslea dela dio Mixelek. Centre democrate deitu alderdiaren inguruan elkartzen dira hor, Mixel eta Errecartez gainerat René Ospital, Eyerabide, Jean Etcheverry Ainchart, Poirier, Goux mauletarra eta Bidasuneko Sallagoity. Biarnesetan, berriz, De Chevigne, lehendakari izana, Sibor eta Barreyat aipa daitezke.



Nafarra, oi Nafarra kantuaren eskuizkribua



Gitarra jotzen, ondoan bere gitarra



## SENATORE AZKENIK

Mixel Labeguerie 1974an bilakatuko da senatore. Inchauspek erran didanez eskukaldi bat eman zion Mixeli gradu hori biltzeko. Horrela, politika-gizonak piztien antzekoak baitira, bakoitzak bere lur edo eremu mugatua izanez, laguna bakean utziko zuela eta. Beraz bat diputatu, bestea senatore.

Moutet, Orthes-eko auzapez biarnesa hartu zuen ordain Mixel Labeguerie senatoreak. Hiru bozkatzailetarik biga biarnesak baitira bozaldi horretan.

Senatore bezala lan handia egin du Mixelek Parisen. Arazo sozialen elkarteko «rapporteur» edo lege-ekarle izan da askotan. Azaldu dituen legetasmoak familiaren ingurukoak dira. Denek helburu hau dute: horiek sustatzea, hala nola amari jornal bat emanez haur ttipiaren ondoan egon dadin. Gero ama hori legez gerizatu behar da bere lana berriz atzeman dezan. Familia ez ote zen 1934an Piarres Lafitte apezak sortu *Euskalherrizaleak*-en oinarrizkoenatarik?



Eneko semea kantari ari da

17

Bestalde, istripu batek edo zorigaitzak jo dituenen aldeko legegaiak ditu sustatu. Poher, Senatuko lehendakariak zioenez: «Gure gizarteak gehienik baztertu dituenen zaintzaile izan da!» eta Frantxois Bayrouk idazten duenez «azken sei urte hauetan atera diren lege premiatsuenen sortzaile eta zaintzaile».

Azkenik, 1975ean, Haby hezkuntza nazionaleko ministroari mintzaldi luze batean azaltzen zion euskara zer altxorra zen guretzat eta munduarentzat eta honen alde behar zena egitea galdatzen edo eskatzen zion. Zendu zen urtean, 1980an, CDSko senatore lagunekin euskal kulturaz legegai bat xutik emana bazuen.

## ENBATA-REN SORTZAILE

Piarres Larzabal, Ximun Haran eta geroago Mixel Burucoa, Mixel Eppherre, Jakes Abeberry eta Jean Louis Davantekin Mixel Labeguerie Enbataren sortzaile izan zen.

Mila bat jendek onartu zuten «Itsasuko Ageria», 1963ko apirilaren 15ean. «Zazpiak bat» da honen helburua, Europa batuaren barnean Euskadi kokatuz. Agiri hori asmatu eta idatzi zutenetan zen Mixel.

Ondotik Enbatatik urrundu zen. Batzuek ez diote hori barkatzen, beste batzuek auzitan ez eman nahi, iduri baitzaiote, orduko giroan, Mixel Labegueriek bere euskal borroka eta frantses hautetsi bizia ez zitezkeela elkarrekin konpon. Berak hauxe dio: «Enbatatik aldendu banintzen ez zen helburuekin bat ez netorrelako, metodo kontuagatik baizik» (*Deia*, 1979-VI-10). Hiru urte lehenago, berriz, hauxe dio 1976ko martxoaren 19ko *Enbata* aldizkarian: «14 edo 15 urte nituenetik nere eskola demokrazia giristinoaren familia hortakoa izan da eta egun ere hala da. (...) Espainiako demokrazia giristinoarekin harreman hertsia badituz eta PNV/EAJ hortan da. Sabino Arana Goirenen abertzalegoa hetsia eta arrazista zen. Nik etnien Europa nahi

dut... denen gainetik izanen den europar nazioean ikusten dut Euskadi».

Indarkeriaren aurka zen Mixel. Berak moldatu bertsu hauetan errana den bezala ez zuen nolana hiko Euskal Herria nahi.

Aberriaren askatasunaz profetak  
mintzo denetan,  
Zauri guzien erremedioa dadukate  
hitz batetan.


Nik ere nai dut Askatasuna  
Izaitekotan gizonarena.

Xori txikiak, kaiolan denak,  
askatasuna zertako?

Libratu eta erortzen bada arranoaren  
meneko!

Euskal Herrian ere badugu  
mendietako arrano,

Euskal xoriak daduzkatenak beren  
menean esklabo.



## BERTSOZALE HANDIA

Bertsozale handi bat izan da Mixel Labeguerie. 1948 eta 1952ko urteetan, Saran, txapelketak izan ziren eta oso ohar interesgarriak utzi dizkigu Mixelek bi saio horiei buruz eta oroz gainera bertsolariak egun horietan, erabili doinuez. Oro har, hegoaldekoak, eta oroz gainera, Zubikoa, iparraldekoak baino xuxenago ari direla dio. Hor aipatzen du ere 80 urteko Capdeville arruntarra «Pange lingua» iduriko doinu batean kantatzen duena.

Hona zenbait bertsolari zer dioen: «Uztapide: berezi, klasiko, jaun! Basarri: dena lore, nasai, bere buruaz segur, “maestro!”. Mattin: lapurtarrek maiteenik duten gizona. Berak hori badaki. Doi bat bihurria. Etxahun: ahoa beti lilitsu. Xanpun: goiti ari. Nahiz desberdin. Bertsolari gazteetan hoberena».

Mixeli epaile izaitea gertatu zaio. Besteak beste, Francoren gerra ondoan, 1960an, egin zen Euskal Herriko Bertsolarien Lehen Txapelketa Nagusian. Basarri, Uztapide, Xalbador, Mattin, Mitxelena, Mugartegi,



Eskualtzaleen Biltzarra Mitikilen, 1958an. Eskuinean jarririk Jean Errecart senatorea. Gibelean, erdian xutik, Joseph Camino apeza, orain Baionan bikario nagusia da

Azpillaga, Narbarte eta Perurena neurtu ziren eta txapela Basarrik irabazi zuen hartan, epaimahaiko Mixel Labeguerie izan zen Iparraldetik, Arrue, Koldo Mitxelena, Irigarai, Antonio Zabala, Bordari, Joan Mari Lekuona eta abarren ondoan.

Gai ematen ere askotan ari zan da. Haren euskara ederrak eta haren su eta talentuak bertsolariak hunkitzen zituen eta bertso onaren bidean emaiten. Bazekien bakoitzari zer gai eman. Adibidez, usoarena. Mattin eta Zubikoa elkarrekin emanen ditu. Bat usoa, bestea ehiztaria. Xalbador bakarrik ariko da sareetan eroria den

usoa baita. Uztapidek gaia hau du: usoa, bakearen mezularia.

Txomin Ezpondak dioenez Mixel Labeguerie ez balu bere bidean kausitu, ez da batere gauza segurua bertsoan segituko zuela. Mixelek anitz eta anitz lagundu du gisa guzietarat, teknika aldetik: erritmo, euskara, doinu eta abar, bai eta bere nahikundea sustatuz eta berotuz ere. «Eta Mixel notable bat baitzen, harek eta haren iduriko batzuek, halako handitasun batez paratu dute gure lana: ostatu zilotik atera, plazarat eraman eta elizetan ere sar arazi» aitortzen du Txomin Ezpondak.

20



Xalbador eta Mattin bertsolarien artean. Eskuinean, Jean Haristchelhar euskaltzainburua

Xalbadorri 1976ko azaroaren 7an Urepelen Eskualtzaleen Biltzarraren babesean egin zitaion azken omenaldian ere han zen Mixel Labeguerie senatorea, Eskualtzaleen Biltzarreko lehendakari eta bertsozale zenez.



Eusko kantu ta dantzak eskuizkribua. 1943an bildu zituen



Lehen kasetea 8 kanturekin

## EUSKAL KANTA BERRIAREN AITA

Mixel Labegueriek euskal musikan eta euskal kantugintzan egin duena aipatzekoa da. Gazteriak oso gogotik kantatzen zituenak eman baitzituen. Hona Jose Antonio Arana Martijaren iritzia:

«Munduko gerra ostean hasia zen Ingalaterran eta Frantzian *folk song* aro berria, hots, folklorea, herrian hain zuzen, erroturiko kantuen berrikuntza. Osagilea zen Labeguerie Kanbon 1948tik aurrera. Herritar euskaldunekin harreman estuak bazituen ere, uhin berri bat zetorren kanpotik. Bera bezala 1921ean jaiotako Georges Brassens frantsesak emanak zituen molde berriko kanta xumeak, herriak gogoz eta erraz ikasten zituenak. Bide beretik zetozen beste kantari arrotz batzuk, Jacques Brel eta Guy Beart, esate baterako. Euskal Herrian ere Nemesio Etxanizek argitaratua zeukan *Kanta kantari* liburua (1951) eta Telesforo Monzonek ere Mexikon argitaratuak zituen *Urrundik* (1945) eta *Gudarien egiñak* (1947) olerki askori herri doinu tradiziozkoak jarritz. Gero etorriko dira *Itziarren semea*, *Lepoan hartu*, *Aupa gizon*, *Euskarari bai* eta beste. Mota politiko honetako kanta sortuak zituen ordurako Labegueriek.»



«Enbata taldean sartua zen 1960an, eta orduan eman zigun *Gu gira Euskadiko* kanta eta Larzabalen testuarekin *Zer duk nigarrez*. Ez ziren ezagunak, kantaldirik ez zegoenez, bazkalosteetan eta lagunartean kantatu beharra gertatzen zen. Baina diskoa zen beste bide bat emaitzak ezagutarazteko. Eta hara non 1961ean kaleratzen duen lehen diskoa. Ikurriña eta gitarra agertzen ziren koloreetako azalean. Horra hor bi berezitasun berri: abertzaletasuna gai nagusia (kanta hunkigarriak, tragikoak, aberkoiak eta umorezkoak ere) eta gitarrarekin kantatuak. Iparragirrek bereak kantatu zituenetik ez zen halakorik entzun. Euskal irratiak, 1960an sortuak, ematen hasi ziren entzuleengan zirrara sortuz, mamiz eta

moldez berriak zirelako: *Primaderako liliak*, *Gu gira Euskadiko*, *Astoa Balaan*, *Bakearen urtxoa*, *Aurtxo aurtxo* eta abar.»

«Eragin handia izan zuen Labegeriek euskal kantagintza berrian. Hizkuntza eta euskal kontzientziaren errepresioaren aurka jarri zen gure kantarien uhin berria. Donostian agertu zen lehendabizi 1966an *Ez dok hamairu* taldea, bide berrietan jarraitu zuena. Eta gero beste asko eta asko. Mixel Labegerieri zor diogu uholde berriaren sortzea».

Xabier Letek ere garbi aitortzen dio aintzindaritza hori, 1977ko urria-abenduko *Jakin* aldizkarian: «...Euskal kantaren lehen urratsetan Mixel Labeguerie dago. (...)



Eskuartzaleen  
Biltzarra. Mixel  
Labeguerie  
lehendakari izan zen



## AZKEN AGURRA

Bere ehorzketa-egunean, Kanboko herriko etxean langile ginen guzien izenean, azken agur bat egin nion Mixel Labeguerieri. Gu denen nagusia baino gehiago adiskidea zen hari hona, besteak beste, zer erraiten nion: «Mundu huntan, gizonak gizonari idekidura ttipia egiten dio bere buruaz. Bakotxa gelditzen da hetsirik bere misterioan, eta adiskideak adiskideari, bere izaiteaz ainitz gordetzen dio. Bada, bistan da, behako baten erran-nahi guzia, bainan bada ere hitzaren gezurra. Eta zu hitzen nagusi bat zinen. Zure meneko zinituen, eta josten eta uztartzen zalointasun berezi batekin... Segur naiz zenbait urrundutuzula zutarik zure errextasun horrengatik, zure ahotik atera hitz erauntsia beregain baitzoan zenbait aldiz, laxaturik zuren barne barneko mamia, zure odol hezurretan sendi zinuen egia eta amodioa.»




Bere anaiarekin

«Euskara baitzen, olerkariak dioen bezala, “zure amaren ezpain sakratuetarik ikasi mintzaira” sakratua zinaukan euskara.»

«Borrokari emana zinen eta ukaldiak heldu zitzaizkizun alde guzietarik. Zenbaitentzat epelegi, bertzentzat beroegi, zure saila bazineraman “xutik”».

Xalbador bertsolariak Pompidou-ren ehorzketen ondotik egin bertsoak ederki zoazkien Mixel Labeguerieren hiletei ere:

Kontrarioek ere bazuen aspaldi  
Etzutela iragan egun bat hoin geldi,  
Errespetu osoa denetan zen sendi,  
Noiz ikusi ote da herri bat hoin handi?



*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:*

- *Mixel Labeguerieren senitartekoak*
- *José Luis Villar argazkilaria*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 1999ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.  
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: RGM, S.A.  
Padre Larramendi, 4 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-1452-X (Obra osoa)  
84-457-1453-8

L.G.: BI - 2.683-99

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística